

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Hemeretzi ikaslek Lanbide Heziketako sari bereziak jaso dituzte Nafarroan

Beren espezialitatean ikasketa-espedita onena saritzen duten sari-banaketaren buru izan da Iribas kontseilaria

Martes, 27 de marzo de 2012

Lanbide Heziketako eta Arte Plastiko nahiz Diseinuko hemeretzi ikaslek sari berezi bat jaso dute 2010-2011 ikasturtean zehar beren espezialitatean ikasketa-espedita onena lortzeagatik. Hezkuntzako kontseilari José Iribas Sánchez de Boado izan da ekitaldiaren buru, eta bertan izan dira saritutako hemezortzi ikasle beren familiarrekin eta ikasi duten ikastetxeetako oirdezkariekin, eta baita Lanbide Heziketako Zerbitzuko zuzendari Marino Barásain Romeo ere.



Iribas kontseilaria eta Barásain saritutako ikasleekin.

[Hemeretzi saritu](#)etatik, hamahiruk goi-gradu zikloak egin zituzten eta seik, gradu ertaineko zikloak. Haietako bakoitzak diploma bat eta 600 euro dirutan jaso ditu goi-gradu ikasleentzat, eta 350 euro, gradu ertainekoentzat.

Nafarroako Gobernuak sortutako sari horiek, Lanbide Heziketako eta Arte Plastiko nahiz Diseinuko ikasketak amaitzen dituzten ikasleen ahalegina, lana eta ardura ofizialki aitortzen ditu, ikasketaren bikaintasunaren sariaren bitartez.

Gogora ekarri behar da, sari berezi horietara aurkezteko ezinbesteko baldintza zela LHko ikasketak Nafarroan amaitzea 2010-2011 ikasturtean gutxienez 8 puntuko azken kalifikazioarekin gradu ertaineko ikasleen kasuan, eta 8,5 puntukoarekin goi-graduaren kasuan.

Deialdi horretara, guztira 88 ikasle aurkeztu dira, eta kopuru horretatik 41 gradu ertaineko tituludunak dira eta 47, goi-gradu ziklotakoak. Haietatik, hautaketa-batzordeak hemeretzi sarituak hautatu ditu, beraien ikasketa-espedita araberako eta egindako ikasketen lotutako beste prestakuntza nahiz laneko merezimenduen araberako.

Sarituen zerrenda
honako hau da:

Gradu ertainean: Josu
Arregui Borrega, Iruñeko

Donapea Zentro Integratu Politeknikokoa (LHI); Nahikari
Martínez Marco, Iruñeko Maria Inmaculada ikaetetxekoa; David
Montávez Pacífico, Lizarrako LHIkoa; Sheila Núñez Valera eta
María Stoupnikova, biak ere Ibaialde-Burlatako BHIkoak; eta
Sara Urzaiz Ochoa, Iruñeko Cuatrocientos ITC ikastetxekoa.

Goi-graduan: Miguel Aramburu Garmendia, Nafarroako
Osasun Eskola Teknikokoa; Javier Cruz Hernández, Tuterako
LHI ETIkoa; Javier Dronda Barrientos, Iruñeko Arte Eskolakoa; Vicente Galbete Ciáurriz Iruñeko Adaptación
Social BHIkoa; Virginia Jiménez García, Ibaialde-Burlatako BHIkoa; Blanca Marín Vaquero, Tafallako LHIkoa;
Amaia Menta Rangel, Nafarroako Osasun Eskola Teknikokoa; Alexandra Roca Zúñiga, Iruñeko Virgen del
Camino LHIkoa; Rubén Romano Fernández, Donapea LHIkoa; Yolanda Sahún García, Ibaialde-Burlatako
BHIkoa; eta Marta Leonor Sanz Marco, Iruñeko María Ana Sanz Zentro Integratukoa Administrazioan,
Merkataritzan eta Informatikan.



Diplometako bat banatzen.